

BANDOA (B24-2020)

TERRAZAK ALARMA EGOERAREN ONDOREN

Alarma egoerak eragindako itxieraren ondoren, saltoki txikiak, ostalaritza eta udalerriko zerbitzuak bultzatzeko asmoz, Udalak aukera eman zuen tabernek terrazak handitzeko deseskaladaren faseetan, espazio publiko gehiago hartuz.

Alarma egoera amaitu da eta aplikatu behar da Nafarroako Gobernuak 2020ko ekainaren 19an hartutako akordioan ezarritakoa. Akordioak Nafarroako Foru Komunitatea normaltasun berrian sartzen dela deklaratu du eta COVID-19ak eragindako osasun krisiari aurre egiteko beharrezko prebentzio neurriak ematen ditu, Normaltasun berrirako trantsizio planaren 3. fasea gainditu ondoren.

Aipatutako akordioak ostalaritza eta jatetxe establezimenduetarako ezartzen duenez, aire zabaleko terrazak udal lizentzian baimendutako mahaien edukieraren ehuneko ehunean okupatu ahal izango dira.

Nolanahi ere, pertsonen arteko segurtasun tarte gorde beharko da mahaien edo mahai multzoen artean. Gehienez 25 pertsonak osatutako talde batek okupatzen ahalko du mahai bat edo mahai multzo bat.

Higiene eta prebentzio neurriak aplikatu beharko dira.

Ondorioz, terrazak berehala itzuli beharko dira okupatutako azaleraren jatorrizko egoerara eta dagokion lizentzian baimendutako mahaietara. Beraz, eraginik gabe geratzen dira alarma egoeran baimendutako terrazen handitze guztiak.

Bera, 2020-06-22
SINADURA DIGITALA.
ALKATEA, Aitor Elexpuru Egaña